



### SARIA LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAN IKERKUNTZA, GARAPEN TEKNOLOGIKO ETA BERRIKUNTZARI

**Mutualiaren enpresa kidei eta langile autonomoei zuzendutako saria da.**

MUTUALIAk lanean segurtasuna eta osasuna sustatzeko MUTUALIA SARIAREN zazpigarren edizioa antolatu du, CONFEBASK (Euskadiko Enpresarien Konfederakuntza), ADEGI, CEBEK eta SEAREN lankidetzarekin.

#### SARIAREN OINARRIAK

##### 1. Xedea

Xedea da Mutualiari atxikitako enpresa eta langile autonomoen lana aitortzea, zabaltzea eta sustatzea prebentzioko kudeaketa dela-eta nabarmentzen direnean; hain zuzen ere, ondorengo jardueretako bat egin dutelako: laneko arriskuen prebentzioaren arloan ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza.

Aurkeztutako proiektuek hainbat alderdi gara ditzakete: prebentzioko esku-hartzeak, produktu, sistema nahiz tresna berriak, irakasmaterialak, konponbide teknologikoak, kudeaketarako metodologiak, etab. Baita enpresetako antolamendua edo lan-baldintzak hobetzen lagunduko duen edozein jarduketa ere.

Aurten, lehen aldiz, Mutualiak sexu jazarpenaren prebentzioan esfortzu eta praktika egokiak egindako enpresak saritu nahi ditu. Horretarako, lantokian ematen diren sexu eta sexista diren jazarpenei aurre egitea helburu duen prozedura eta aplikazio hoberena burutu duen enpresa, akzesit baten bidez ezagutaraziko da.

##### 2. Izangaiak

Epaimahaiak erabakia hartzen duen momentuan Mutualiako kide diren enpresa eta autonomo guztiek dute saria irabazteko aukera.

##### 3. AITORPENA

Saritutako enpresa eta langileek Carlos Ciriza artistaren eskultura bat, *Punto Central*, eta diploma bat jasoko dute. Artelana enpresek segurtasunaren eta laneko osasunaren arloan egindako ahaleginen aitortpena da.

Gainera, lanean ematen diren sexu eta sexista diren jazarpenen prebentzioaren akzesita jasotzen duen enpresari praktika egokiak egiaztatzen dituen diploma emango zaio.

##### 4. Epaimahaia

Epaimahaikideak ondorengo erakundeetako kideak izango dira: Mutualiako zuzendaritza eta Prebentzio Sailekoak, Osalanekoak eta Confebaskekoak.



Prebentzio Saileko kideek bisita egingo diete aurretiko hautaketan aukeratutako enpresei. Bisitaren helburua emandako informazioa osatu eta hedatzea izango da. Epaimahaiak hautagaitza bakoitza aztertuko du, eta dokumentazioari eta frogatutako merezimenduei begira saria nori eman erabakiko du.

### 5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea

Izangaiek Mutualiako inprimaki bat bete behar dute: Mutualiaren webgunetik ([www.mutualia.es](http://www.mutualia.es)) jaitsi dezakete edo Mutualiako Prebentzio Sailari eskatu diezaioke. Inprimakian deskribatu beharko dute enpresak garatutako jarduketa edo proiektu desberdintzaile nahiz berritzailea.

Dokumentuaz gain, informazioa gehitzeko egoki jotako behar beste dokumentazio erantsi dezakete.

Hautagaitzak aurkezteko epea **2016ko martxoaren 14an** amaituko da. Ahal dela, formatu elektronikoan aurkeztuko da dokumentazioa, eta [prevencion@mutualia.es](mailto:prevencion@mutualia.es) helbidera bidaliko da (T. 94 4042105).

Aurkeztutako dokumentazioa Mutualiaren esku geratuko da, salbu eta egileak espresuki kontrakorik zehazten badu.

### 6. Baldintzak

Hautagaitza balioztatzeko proiektuak txertatutako hobekuntzak eta desberdintze alderdiak kontuan hartuko dira; baita proiektua beste enpresetan eskuragarri eta aplikagarri den ere.

Akzesiterako hautagaien artean sexu jazarpenaren prebentzioan egindako praktika egokiak baloratuko dira.

Balio positiboa emango zaio saria aurkezteko datan proiektua ezarrita, garatuta edo argitaratuta egoteari; orobat, ekarritako emaitzei erreparatuko zaie.

Aintzat hartuko da enpresak zer ibilbide duen istripu-tasari eta gauzatutako prebentziozko kudeaketari dagokienez.

### 7. Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiak **2016ko apirilaren 15ean** hartuko du erabakia.

Sari-banaketa Donostian egingo da, **2016ko apirilaren 27ko** ekitaldi publikoaren barruan, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Eguna ospatze aldera.

Hautagai diren enpresek eta pertsonak honako hauetarako baimena ematen diote Mutualiari: sariaren emaitzak argitaratzeko eta jardunbide, metodologia, tresna, etab. egokiak osoki edo partzialki jendarteratzeko; beste enpresei ideiak eman eta haietan kontzientzia sortu eta eredugarri izateko. Betiere, enpresaren izena adieraziko da, eta hark gordeko du jabetza intelektuala.

Enpresa irabazleek saritu-izaera baliatu dezakete idazpuruetan, iragarkietan etab., baita aitorten hori edozein komunikabideetan argitaratu eta jendarteratu ere, Mutualiak garatutako sari-irudiari jarraikiz.

Sarira aurkezteak berekin dakar oinarriak espresuki onartzea eta epaimahaiaren erabakia apelaezina dela.